

## BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

### 2350

*EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 8koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, argitara ematen duena 2026an euskararen eremu geografikotik kanpo zinema- eta literatura-arloko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko bidaia-poltsak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia.*

Etxepare Euskal Institutua (aurrerantzean EEI) Sortzeko eta Arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 3.b) letrak helburu hau xedatzen du aipatutako institutuarentzat: «Euskal kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adiera-molde-tan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz».

Bestalde, EEIren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du institutu horren eskumenekoa dela euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea eta hedatzea. Dekretu horrek 19.2 zenbakian dio Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko arloak musika, arte eszenikoak, ikusizko arteak, zinema, arkitektura eta diseinua hartzen dituela. Bestalde, zenbaki horren f) letrak institutuaren funtzioen artean aipatzen du euskal sorkuntza nazioartean ezagutzera emateko kultur eragileei laguntzeko programak diseinatzea.

Hori dela eta, EEIri jarduteko arlo gisa adierazi zaizkion eskumenen barruan, egokitzat jo da prozedura ezartzea euskal zinema eta literatura euskararen eremu geografikotik kanpo sustatu eta hedatzeko lagungarri diren kultur jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak esleitzeko.

Dirulaguntzok eta horiek emateko oinarrizko irizpideak Zuzendaritza Kontseiluak onartu zituen 2026ko martxoaren 16an, eta 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2026ko Dirulaguntzen Urteko Planean sartuta daude (Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2026ko otsailaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen plan hori), eta euskara eta euskal kultura EAetik kanpo sustatzeko helburu estrategikoaren barruan daude.

(<https://www.euskadi.eus/plan-departamental/pes-2025-2028-plan-estrategico-de-subvencio-nes/web01-a2kultur/es/>)

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea EEIren Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia, 2026. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zinema- eta literatura-sortzaileak eta -eragileak nazioartekotzeko bidaia-poltsarako dirulaguntzak ematekoa. Deialdiaren edukia ebazpen honen eranskin gisa doa.

Donostia, 2026ko maiatzaren 8a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,  
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

## ERANSKINA

## 1. artikulua.– Helburua.

Deialdi honen xedea da bidaia-poltsetarako dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzea, 2026an euskararen eremu geografikotik kanpo zinema eta literatura arloko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko.

## 2. artikulua.– Berariazko baldintzak eta bazterketak.

Dirulaguntza hauek emateko, honakoak hartuko dira aintzat:

Zinema: zinema alorreko eragileei (zuzendari, aktore, ekoizle, gidoigile) nazioarteko zinemaldietako programazio ofizialetan parte hartzeko dirulaguntzak ematea, zinemaldiak bertan euskal film luzeren bat jendaurrean aurkezteko edo ordezkatzeko gonbidatu dituenen.

Jendaurreko aurkezpen hori filmaren proiektzioaren aurretik edo ondoren izan daiteke, baina ez da onartuko prentsaurrekorik edo zinemaldiaren baitan antolatutako bestelako aurkezpenik.

Euskal filmtzat hartuko dira EAEn ekoiztakoak edo euskararen eremu geografikoan euskaraz ekoiztakoak. Koprodukzioen kasuan, ezinbestekoa izango da hiru baldintza hauetakoren bat betetzea:

– Ekoizpenaren % 50 deialdi honen onuradun izateko baldintzak betetzen dituen ekoiztetxe batena izatea.

– Ekoizpenaren ehuneko hori % 50 baino txikiagoa bada, zuzendariak betetzea deialdi honen onuradun izateko baldintzak.

– Film luzea euskaraz izatea.

Zinemaldi horiek nazioartekotzat jotzeko ezinbestekoa izango da gutxienez bost herrialdetako lanak programatzea eta webgunea ingelesez izatea.

Salbuespen gisa, film laburrak onartuko dira zinemaldia zerrenda hauetakoa denean:

Dokumentalak: [https://www.oscars.org/sites/oscars/files/93aa\\_doc\\_short\\_festivals.pdf](https://www.oscars.org/sites/oscars/files/93aa_doc_short_festivals.pdf)

Bestelakoak: [https://www.oscars.org/sites/oscars/files/95aa\\_anim\\_short\\_festivals.pdf](https://www.oscars.org/sites/oscars/files/95aa_anim_short_festivals.pdf)

Zinemaldiak bi ordezkari edo gehiagoren gastuak hartu baditu bere gain, ez da bidaia-poltsarik emango, filma ordezkatzat joko baita. Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez jasoko da hori eskaeran.

Literatura: literatura sektoreko eragileek (idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editore) literatura-alorreko nazioarteko ekitaldietan parte hartzeko dirulaguntzak ematea, horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, literatura-sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkari gisa doazenean.

Ezinbesteko baldintza izango da ekitaldiaren antolatzaileak literaturaren inguruko programazio egonkorra izatea. Hori egiaztatzeko, hiru modu aurreikusten dira: gonbidapenean bertan zehaztea antolatzaileak, sareen bidez egiaztatu ahal izatea kudeatzaileak edo kudeatzailea zuzenean harremanetan jartzea ekitaldiaren antolatzailearekin.

Ebazpen honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Ikasketa-bidaiak, ibilaldiak, txangoak, trukeak, aisialdia edo antzekoekin lotura dutenak.
- Hezkuntza arautuarekin zerikusia duten jarduerak eta edozein eratako ikastaroak, workshopak ere barne direla.
- Biltzar, jardunaldi, hitzaldi, mintegi eta antzekoetan parte hartzea, horietan EEIk presentzia badu irakurletzen bidez.
- Gastronomia edo kirolarekin zerikusia duten topaketa, jardunaldi, erakustaldi eta antzekoak.
- Nagusiki edo osoki euskal etxeetako kideak hartzaile dituzten jarduerak.
- Euskal zinemaren parte hartzea babesteko edo euskal leihoa sortzeko EEIrekin hitzarmena duten zinemaldiak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eginak izan beharko dira.

3. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Deialdi honetarako gehieneko zenbateko orokorra hogeita hamar mila (30.000) eurokoa izango da.

4. artikulua.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

Segidako lehiaketaren araubidea.

Deialdi honen xede diren laguntzak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.3 artikuluan aurreikusitako segidako lehiaketaren araubidea erabiliz esleituko dira. Prozedura horretan, dirulaguntzak jasotzeko, oinarri hauetan ezarritako betekizunak bete besterik ez dute egin beharko eskatzaileek; ez da haien artean konparaziozko balioespenik egingo, ez eta baterako aintzatespenik ere. Kasu horretan, eskaerak modu ordenatuan ebatziko dira, erregistroaren hurrenkeratik abiatuta (eguna eta ordua), espedienteak erabat osatuta geratzen diren unearen arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, aurrekontua agortu egiten bada, EEIko zuzendariak amaitutzat joko du eskabideak aurkezteko epea. Horretarako, dagokion ebazpena argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Ezarritako xedera bideratutako diru-funtsak agortzeak arrazoituko du erabaki hori.

Funtsa agortu eta ebazpena argitaratu bitartean eskabideren bat epean jasotzen bada, hasiera batean kanporatua izango bada ere, erreserba egoeran geldituko da esleitutako dirulaguntzak onartzen ez diren kasuetarako. Ondorio honetarako ere, erregistroaren hurrenkeratik abiatuta, espedienteak erabat osatuta geratzen diren unea hartuko da kontuan.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Dagokion ekitaldian parte hartzekoak: joan-etorria, ostatua eta dietak.

1.– Dirulaguntzen zenbatekoa:

a) Ostatu eta dietetarako gehieneko gastuak, pertsonako eta eguneko: Espainian, hirurogeita hamar (70) euro ostaturako eta berrogei (40) euro dietetarako. Espainiatik kanpo, ehun eta hogeita (120) euro ostaturako eta hirurogei (60) euro dietetarako.

b) Soilik 2 ostatu-gauren gastua eta 3 eguneko dietak onartuko dira ekitaldiko. Bi emanaldi edo gehiago izanez gero, 3 gauren gastua eta 4 eguneko dietak onartu ahal izango dira gehienez.

c) Ekitaldiko pertsona bakar baten gastuak lagunduko dira diruz. Ekitaldi bererako eskaera bat baino gehiago bada, lehen erregistratu denak jasoko du laguntza.

d) 1.200 kilometro arteko joan-etorrirako autoa erabili ahal izango da. Hala eginez gero, zero koma hogeita hamabost (0,35) euro ordainduko da km-ko, gehi autobidea. Kilometro kopurua kalkulatzeko, pertsona fisiko edo juridikoaren egoitza soziala edo errolda hartuko da abiapuntutzat. Aipatutako kilometro horiek baino urrunagoko ekitaldietan ez da kilometrajetik ordainduko.

e) Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoren bat erabiliz gero, txartel arrunta onartuko da.

f) Ez da taxi edo aparkaleku gasturik onartuko.

g) Ezin izango da diruz laguntzeko moduko gastutzat hartu BEZaren zenbateko kengarria, eska-tzaileak zerga horren aitorpena egin beharra duenean.

2.– Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak eta mugak.

– 5.000 km-tik harago egitekoak diren ekitaldiak: mila eta bostehun (1.500) euro.

– 1.201 km-tik 5.000 km-ra bitartean egitekoak diren ekitaldiak: mila (1000) euro.

– Gehienez ere 1.200 km-ra egitekoak diren ekitaldiak: bostehun (500) euro.

Eskatzaileek nahi beste eskabide aurkez ditzakete, baina jasotako dirulaguntza guztien batura ez da inolaz ere izango bi mila (2.000) euro baino handiagoa. Era berean, proiektu berarekin lotuta pertsona batek baino gehiagok eginiko eskaerak ere ezin izango dute zenbateko hori gainditu. Horren inguruko desadostasunen bat bada, erregistroaren dataren arabera ebatziko dira.

3.– Hori guztia, abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, Dirulaguntzaren Araubidea Erregulatzen duenak, 30. artikuluan jasotakoa alde batera utzi gabe.

6. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira onuradunek jarduketa beretako gastu-kontzeptu berberak finantzatzeko lor ditzaketenen beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

7. artikulua.– Onuradunak.

Deialdi honek aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira: pertsona fisikoa edo juridiko pribatua izatea eta errolda edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

Baldintza hori egiaztatzeko, pertsona fisikoek errolda-ziurtagiria aurkeztuko dute, eta, pertsona juridikoek, berriz, dagokion agiria.

Zabaldutako obraren edo lanaren komunikazio-hizkuntza euskara denean, honakoak ere izan daitezke onuradun:

– Errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak. Euskararen eremu geografikotzat hau hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa.

– Nazioarteko zinemaldiak eta literatura-alorreko ekitaldien antolatzaileak, 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ezinbestekoa izango da eskatzaileak ez ezik gonbidatuak ere betetzea onuradun izateko baldintza.

Ezingo dute dirulaguntzarik eskatu nagusiki kapital publikoa duten entitate pribatuek eta fundazioek; edota dagokion modalitateko sektorearen jarduerarekin lotura zuzenik ez duten elkarteek.

Jarduera bakar baterako bi eskabide badaude, bata jaialdiak edo antolatzaileak bideratua eta bestea gonbidatuak bideratua, dirulaguntza bakarra emango da. Ondorio horietarako, ebatzitako lehen eskaera gailenduko da, eta hurrengo eskaera ezetsiko da.

8. artikulua.– Eskatzaileen betekizunak.

Eskatzaileek betekizun hauek bete beharko dituzte laguntzaren onuradun izateko:

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatea.

– Eskatzaileak ez egotea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen administratibo edo penal baten pean, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren batean, dagokion zehapenak ezartzen duen aldian, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne; azken horietan sartzen dira Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.2 artikuluan aurreikusitakoak (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) edo Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua ez betetzeagatik aurreikusitakoak.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

Eskatzaileek edo onuradunek, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela joko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitaterekin dirulaguntzak itzultzearekin lotutako zorrik ez badute epe exekutiboan.

Era berean, pertsonak edo entitateek dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketak egunean dituztela joko da, baldin eta zorrak zatituta edo geroratuta eta bermatuta badaude edo, itzulketaren ebazpena aurkaratu izanagatik, zorra etetea erabaki bada.

– Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11. artikuluan eta 13. artikuluen 1., 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

– Baldintza horiek guztiak jasotako dirulaguntzaren kitapena eman arte bete beharko dira, ez bakarrik onuradun-izaera izan ahal izateko, baita izaera horri eusteko ere.

9. artikulua.– Eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat etorriz, interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egindakoak diren agiriak. Agiri horiek administrazioak berak kontsultatu edo atera ahal izango ditu, interesdunak kontrakoa adierazi ezean. Kontrakoa adieraziz gero, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

Pertsona edo entitate eskatzaileak atzerrikoak direnean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak, edo horien baliokideak, aurkeztu beharko dituzte; baita, hala badagokio, eskatutako beste edozein agiri ere.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen baitan, betebeharrak hauek egiaztatuko dira, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez:

– Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi beharko da, edozein administraziotatik edo ente publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Aurreko hiru urteetan eskatutako eta, hala badagokio, jasotako beste de minimis laguntza batzuk jakinaraztea.

– Eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

– Eskatzaileak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela adieraztea.

3.– Eskaera beste pertsona baten izenean egiten denean, legezko ordezkariaren identitatea eta daukan legezko ordezkartza ahalmenaren egiaztatzeak aurkeztu beharko dira.

10. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Etxepare Euskal Institutuko Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko Arloari dagokio deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak kudeatzea.

11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Pertsona fisikoek eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte.

– Aurrez aurre: eskabideak helbide honetan aurkeztuta: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza 1, Tabakalera eraikina, 3. solairua (20012 Donostia), goizeko 8:30etik 14:00etara. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

– Bide elektronikoa: euskadi.eus gunean, artikuluko honetako 4. atalean adierazitako helbidean, aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabidea aurkezterakoan bide bat edo bestea erabili, aurrez aurrekoa edo elektronikoa, eskatzaileak prozedurako edozein unetan aldatu ahal izango du ordura arte hautatutako bidea.

2.– Pertsona juridikoek eskabideak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dituzte, artikuluko honetako 4. atalean adierazitako helbidean.

3.– Salbuespenez, atzerriko pertsona juridikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak.

4.– Eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu, formularioa eta argibideak euskadi.eus egoitza elektronikoen ondorengo helbidean egongo dira eskuragai:

[www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032011](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032011)

Eskabidearen ondoko izapideak gunen honetan egingo dira bide elektronikoa erabiliz gero:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskatzaileak euskara edo gaztelania erabili ahal izango du eskabidean eta gainerako agirietan. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak auke-ratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Identifikazio elektronikorako, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa onartutako eta argi-ratatutako bitarteko elektronikoren bat izan beharko du eskatzaileak.

7.– Eskaerak aurkezteak esan nahiko du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

8.– Jarduerako eskabide bana aurkeztuko da. Eskatzaileraren batek eskabide bat baino gehiago aurkezten baditu, nahikoa izango da administrazio-dokumentazioa behin aurkeztea.

9.– Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko urriaren 31n amaituko da. Halaber, epe hori amaitutzat joko da deialdiaren diru-zuzki-dura agortzen denean.

10.– Ebazpena eman aurretik aldaketaren bat gertatzen bada eskaeran aurkeztutako proiektuan, idatziz jakinarazi beharko dio EEIri, edo «nire karpeta» gunearen bitartez, izapidetze elektroni-koaren kasuan. Jakinarazpen hori hartzen duenetik 10 egun balioduneko epea izango du EEIk erantzuteko. Erantzunik ematen ez badu, aldaketa onartutzat joko da, baldin eta dirulaguntzaren onuradun izateko arauak ezarritako gutxienerako baldintzak betetzen badira.

12. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoak.

Dagokion jardueraren arduradunaren gonbidapen formalak. Bertan zehaztu beharko dira parte hartzearen nondik norakoak (gonbidatua, jendaurreko aurkezpenaren data, iraupena, zeregina...) eta antolatzailearen kontaktu datuak.

13. artikulua.– Eskaeran egindako akatsak zuzentzea.

1.– Ikusten bada eskabidearen izapidetzea onartzeko eskatzen den dokumenturen bat falta dela edo dokumentu horietan forma-akatsak daudela, edo eskabidea baloratzeko aurkeztutako dokumentazioan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari aka-tsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitazeko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela uler-tuko dela, ebazpen baten bidez.

2.– Eskabidea elektronikoki aurkeztera behartuta dagoen eskatzaile batek aurrez aurre aur-kezten badu, elektronikoki aurkezteko zuzenketa eskatuko zaio. Ondorio horietarako, eskabidea aurkeztu den eguntzat hartuko da zuzenketa egin den eguna.

14. artikulua.– Ebazpenak, jakinarazpenak eta epeak.

1.– EEIko Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko Arloari dagokio dirulaguntza lortzeko eza-rritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta eman beharreko laguntza kalkulatzeko, EEIren zuzendariak dagokion ebazpena eman dezan.

2.– Dirulaguntzak esleitzeko edo, hala badagokio, ezesteko ebazpenak banan-banan jaki-naraziko zaizkie interesdunari, eta horren berri emango da Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa, guztiek jakin dezaten, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Ebazpenak gehienez ere bi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko dira; eskaera erregistroan sartzen den eguna hartuko da prozedura hasteko eguntzat. Gehieneko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak legitimatzen ditu interesdunak dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertzeko, Dirulaguntzen Erregelamendua arautzen duen abenduaren 21eko Legearen 22.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

15. artikulua.– Emandako dirulaguntza onartzea.

Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik hasi eta hamar egun balioduneko epean onuradunak berariaz eta idatziz bere desadostasuna adierazi ezean, dirulaguntza onartua izan dela ulertuko da.

16. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Deialdiaren xede diren dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, besteak beste:

1.– Dirulaguntza adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea, eta diruz lagundutako jarduera 2026. urtean burutzea.

2.– Esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa edozein delarik ere, dirulaguntzaren onuradun orok diruz lagundutako egitasmoaren gauzatzea eta gastua justifikatu beharko ditu.

3.– EEIk egingo dituen egiaztatze-jarduketei men egitea, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jarduerei ere, jasotako dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoan aurreikusitako jarduketak eta jasotako finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketanak onartzea.

4.– Diruz lagundutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabili ahal izateko baimena bermatu beharko dio onuradunak EEIri, horrek informazioa hainbat euskarritan zabal dezan.

5.– Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera, katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan, EEIren logotipoaren bitartez, erakunde horren laguntza jaso dutela adieraztea, horrelakorik berariaz sortuz gero.

17. artikulua.– Justifikazioa eta ordainketa.

1.– Ebazpen bidez esleitutako dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez ordainduko da, jarduera amaitu eta gastuak behar bezala justifikatu ondoren.

Dirulaguntzaren zenbatekoari kendu egingo zaizkio, indarrean dagoen zerga araudiaren baitan dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.

Kasua bada, jarduera hasteagatik aplikagarria den atxikipena onuradunak eskatu beharko du. Emandako dirulaguntza onartzeko 15. artikuluan aurreikusita dauden 10 egun baliodunen barruan aurkeztu beharko da eskaera hori.

2.– Pertsona fisikoek justifikazioak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte:

– Aurrez aurre aurkeztu ahal izango dituzte hurrengo helbidean: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza 1, Tabakalera eraikina, 3. solairua (Donostia 20012), goizeko 8:30etik 14:00etara, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluetan aurreikusitako organoen aurrean.

– Justifikazioak bide elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dituzte hurrengo gunean:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Pertsona juridikoek justifikazioak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dituzte, aurretik adierazitako helbide elektronikoan.

4.– Salbuespenez, atzerriko pertsona juridikoek justifikazioak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte.

5.– Bide presentziala nahiz bide elektronikoa erabili, justifikazioari buruzko argibideak euskadi.eus atarian egongo dira ikusgai, ebazpen honetako 11.4 artikuluan adierazitako helbidean.

6.– Bi hilabeteko epea izango dute eskatzaileek jasotako dirulaguntza justifikatzeko, jarduera amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Jarduera abenduan egiten bada, epe hori hilabetekoa izango da, eta beranduenez 2027ko urtarrilaren 29an amaituko da. Justifikazioa egiteko, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Justifikaziorako fitxa. Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo da eskura.

b) Eginiko jarduera justifikatzeko agiria: kontratua, argazkia, antolakuntzaren ziurtagiria edo antzeko agiria.

c) Bidaiak eta ostatua fakturen bidez egiaztatuko dira. Fakturek eskatzailearen izenean egon beharko dute. EEIk jatorrizkoak eskatzeko eskubidea izango du. Kilometroak eta dietak justifikatzeko aski izango da justifikaziorako fitxa betetzea.

d) Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako materialen ale bana, euskarri fisiko nahiz magnetikoan, erabilitako hizkuntza guztietan, halakorik sortu bada.

e) Halaber, aplikagarria izango da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean 32. artikuluan aurreikusitakoa.

7.– Ezinbesteko kasu baten ondorioz, aurreikusitako jarduera bertan behera geratzen bada eta eskatzaileak dagoeneko bidaia egina badu, legokiokoen dirulaguntzaren erdia ordainduko zaio, betiere antolakuntzaren agiriaren bidez egiaztatzen badu zeintzuk izan diren ekitaldia bertan behera uzteko arrazoiak.

8.– Dirulaguntza justifikatzeko bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, eskatzaileak ebazpenean eman zaion zenbatekoa baino kopuru txikiagoa justifikatzen badu, justifikatutako zenbatekoa soilik jasoko du.

18. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Honako hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo zati bat deialdi honetan adierazitako jardueraz bestelakoetan erabiltzea.

b) Ebazpen honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezarritzen direnak ez betetzea.

c) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoak.

2.– Horrelako kasuren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesak EEIri itzuli beharko zaizkio, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023ko Legearen 40. eta 41. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 3. artikuluan ezarritako zenbateko osoa handitu ahal izango da, baldin eta EEIren beste dirulaguntza deialdi batzuk ebatzi ondoren aurrekontu-izakinak agortu ez badira. Sortutako premien estaldura % 100ekoa izango da, baina ehunekoa gainerako deialdietako soberakinen zenbateko erabilgarriaren arabera izango da. Hala badagokio, aldaketa hori EEIko zuzendariaren ebazpenaren bidez jakinaraziko da, eta ebazpena EHAAn argitaratuko da.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzek edo dirulaguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamendua bete beharko dute, de minimis laguntzen tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa (EBAO, 2831 zk., 2023-12-15ekoa). Laguntza hauek de minimis moduan izendatzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako guztizko laguntza ezin da izan 300.000 eurotik gorakoa, aurreko hiru urteetan. Diru-kopuru horretatik beherako dirulaguntzek ez daukate eraginik merkataritzan, eta ez dituzte lehia-baldintzak desitxuratzen; hori dela eta, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 zenbakiaren aplikazio-eremuan.

Dirulaguntzaren onuradunak aurreko hiru urteetan jasotako de minimis izaerako dirulaguntzen berri eman beharko du eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpena betez, betiere jasotako dirulaguntzek Erregelamenduak adierazitako gehieneko muga gainditzen ez dutela egiaztatzeko asmoz.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak erabili egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute.

Helburua: Etxepare Euskal Institutuak sustatutako laguntzak eta dirulaguntzak eskatzen eta jasotzen dituzten pertsona fisikoen edo pertsona juridikoen legezko ordezkarien zerrenda bat izatea.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- Apirilaren 20ko 3/2007 Legea, Etxepare Euskal Institutua Sortzeko eta Arautzekoa (EHA 2007-05-10, 89. zk.).

Hartzaileak: ez da daturik lagatzen.

Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea izango du eska-tzaileak, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: web-orri honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/057300-cap2-eu-shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/información/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/información/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digi-talak Bermatzekoa:

[https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 0573.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze-ko errekurtsoa jar diezaioke interesdunek EElko Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekur-tsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Deialdi honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.